



BOLUNTARIOTZAREN EUSKAL KONTSEILUA

Akta

2016ko ekainaren 15ean Eusko Jaurlaritzako Lakuako egoitzan, goizeko 10:00etan.

Bertaratuak:

- Ángel Toña Guenaga –Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko sailburua, lehendakaria
- José Alberto Vicente – Kiribil Sarea. Lehendakariordea
- Iñaki Sánchez-Somoza – SECOT Araba
- Mayte Díaz de Lezana – AGLE
- Josu Grandibal – Trebeak Eskautak Federakuntza
- Arantzazu Lersundi – DYA de Gipuzkoa
- Maite Fernández – FEVAS
- Javier Carnicero – Portugaleteko Aisialdi Sarea
- Natxo Arnaiz – Bolunta
- Laura Bañales – Sartu Álava
- Ainara Pérez – Sartu Álava
- Miren Gurrutxaga – Gizalde
- Lide Amilibia – Gizarte Politiketako sailburuordea
- José Javier Miguel- Eusko Jaurlaritzako Familia Politika eta Komunitate garapenerako zuzendaria.
- Rafael Hernández –Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikaria
- Gabin Azaola – Bizkaiko Foru Aldundiko Administrazio eta Gizarte Sustapenerako zuzendari nagusia.
- Estela Sánchez - Bizkaiko Foru Aldundiko teknikaria
- Jose Antonio Galera – Ingurumeneko sailburuordea
- José Antonio Fernández – Segurtasun Saileko teknikaria
- Nicolás Basarrate – Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako teknikaria
- Jon Zuazagoitia – Osasun Saileko teknikaria
- Eva García – Familia Politika eta Komunitate garapenerako zuzendaritzako teknikaria.
- Ramón Andrinua – Lana, Enplegua eta Gizarte Politiketako Bizkaiko ordezkari teknika. Idazkaria.

Gai-zerrenda

- 1.- Aurreko bilkurako akta irakurtzea eta hala badagokio, onartzea
- 2.- 2015ean egindako boluntariora-estrategiaren ekintzak.
- 3.- *Boluntariora EAE n duen egoera 2015* txostenaren aurkezpena.
- 4.- 2016an garatuko diren ekintzak.
- 5.- Galderak eta eskaerak.

1.- Aurreko bilkurako onartzea

2015eko maiatzaren 21ean ospatutako bilkurako akta onartu da.

2.- 2015ean egindako boluntariora-estrategiaren ekintzak

José Alberto Vicentek azaldu ditu 2015ean zehar egindakoak.

9. ekintza - Erakundeentzako komunikaziorako laguntza-plana. Urte honetan hiru jarduera egin dira:

- IKTei buruzko lan-bilera. Maiatzean egin zen: 11n Bizkaian, 12an Gipuzkoan eta 13an Araban.
- Komunikazioaren plangintzari buruzko tailerra. Ekainean egin zen: 8an Bizkaian, 9an Gipuzkoan eta 10ean Araban.
- Elkarrizketa tailerra. Azaroan egin zen: 23an Bizkaian, 24an Gipuzkoan eta 25ean Araban.

Jarduera bakoitzean 60 erakunde inguruk hartu dute parte.

10. ekintza - Eusko Jaurlaritzaren boluntarioraren webgunea eguneratzea. Urte osoan zehar.

12. ekintza - Autonomia Erkidegoko hiru udalerritan boluntarioraren praktikari eta partaidetza sozialari buruz egindako ikerketaren aurkezpena. Ikerketa hori, *Partaidetza soziala eta borondatezko ekintza. Joera berrien diagnostikoa eta identifikazioa, udal-azterketa kualitatibo batetik abiatuta EAEko hiru eremutan* izenekoa, Kontseiluaren azken osoko bilkuran aurkeztu zen. Ondoren, lansaio bat egin zen ekainaren 26an, boluntariorako erakunde eta agentziekin eta administrazioetako ordezkariekin. 36 pertsonak hartu zuten parte bertan. Erroldako erakundeei bidali zitzairen eta webgunearen bidez zabaldu zen.

15. ekintza - Gazteen artean boluntariora sustatzeko kanpaina 2015. Bideoa 2015ean egin zen eta sare sozialen bidez ari da zabaltzen urte honetan. Bideoarekin batera, kanpaina azaltzen duen testu bat eta Jaurlaritzaren eta agentzien webguneetara bideratzen duten esteka batzuk zabaldu dira.

Jarrera desberdinak daude, bideoa zertarako aurreikusitako zen, ea funtzio hori benetan beteko duen. Gazteriaren Euskal Kontseiluari iritzia eskatzea eta haren erantzunaren arabera jardutea adosten da.

17. ekintza - Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna: boluntariotzako erakundeen aintzatespen-ekitaldia. Boluntariotzaren aintzatespen instituzionalerako ekintza. Lehendakaritzan egin zen, abenduaren 2an.

18. ekintza - Ikastetxe eta unibertsitateetan sentsibilizazioa sustatzeko etengabeko programa. Hezkuntza Saileko teknikariek bilera bat egin zen, eta adierazi zuten, haien ustez, ikastetxeak eskaintzaz gainezka daudela orain, eta hori barnean hartu beharko lukeela *Ikaskuntza solidarioa* izeneko ikasgai berriak. Oraindik garatzeke dagoen ikasgai horretan balio zibikoak, sozialak eta etikoak irakatsiko dira. José Luis Madrazo harremanetan egon zen Hezkuntza Berrizatzeko zuzendariarekin, baina ez da inolako jarduketarik zehaztu.

Unibertsitateari dagokionez, Unikide programaren barruan boluntariotzaren azoka bat egin zen apirilaren 22an, EHUko hiru kanpusetan, eta irailaren 24an, Deustuko Unibertsitatean.

23. ekintza - Boluntariotzaren euskal topaketa. 2017ko maiatzean egingo da. Irailaren 14an galdetegi bat bidali zitzaion erroldako erakundeei, topaketa hori nolakoa izatea nahiko luketen jakiteko. 54 erakundek erantzun zuten.

28. ekintza - Boluntarioen prestakuntza. Ekintza hori goiz batean zehaztu zen, tokiko azken hauteskundeetan hautatutako kargu publiko berriei zuzendutako sentsibilizazio-jardunaldi batean. Lehenik Bizkaian eta, emaitza ona izanez gero, Araban eta Gipuzkoan ondoren. Praktika politikora bideratuta zegoen, eta helburu nagusia udaletako arduradun politikoei boluntariotzaren inguruko tresnak ematea zen, boluntariotza eta partaidetza soziala sustatzeko politikak ezartzearen garrantzia defenda dezaten haien udalerrietan.

Abenduaren 16an egin behar zen, baina bertan behera utzi, eta 2016rako atzeratzea erabaki zen. Atzeratzeko arrazoia izan zen oso pertsona gutxi eman zutela izena jardunaldian parte hartzeko. Udal batzuek interesa adierazi zuten, baina esan zuten datak oso txarrak zirela eta, gainera, hauteskunde-prozesuan zailagoa zela, kasu askotan, ardura politikoa zuten pertsonen presentzia bermatzea.

31. ekintza - Topaketa Akitania Eskualdeko Boluntariotza Kontseiluarekin Ekintza hau iraileko azken asterako aurreikusita bazegoen ere, Akitaniako Kontseiluak atzeratzeko eskatu zuen.

32. ekintza - Boluntariotzak Autonomia Erkidegoan duen egoerari buruzko urteko txostena. Boluntariotzari buruzko 17/1998 Legearen arabera, txosten hori ematea Kontseiluaren funtzioetako bat da. Eginda.

3.- EAEko boluntariotzaren egoera 2015ean txostenaren aurkezpena

Txostena Xabier Bañuelos egileak aurkeztu du. Akta honi txostena erantsi zaio.

Enkargua nola egin zen, erabilitako metodologia eta landutako gaiak azaltzen ditu. Elkarrizketatutako pertsona guztien laguntzeko gogo nabarmentzen du.

Lau azken gogoeta aipatu ditu:

Boluntariotzaren definizioaren eta partaidetzak esan nahi duenaren inguruan adostasuna dago 2016an.

- Aldi berean, ikuspegi kritiko bat dago boluntariotzaren kontzeptuarekiko, gizartearen zati batentzat izaera asistentziala duelako.
- Une honetan nahasketa handia dago, eta kontzeptuak eta terminologia ez daude definituta: zer da boluntariotza?, zer da partaidetza?, berriz ere aktibismoaz edo militantziaz hitz egin behar dugu?...
- Erakundeek beren burua berrasmatu egin behar dute eta partaidetza nahiz konpromiso mota berriei tokia egin behar diete; horretan ados gaude.

Jarraian, hasiera eman zaio iruzkinak eta galderak egiteko tarteari.

Jon Zuazagoitiak galdetu du ea aipatutako berrasmatze hori egiteko gakorik badagoen.

Xabier Bañuelosek erantzun du erakundeetan partaidetza egiten den moduaren eta gizartearen errealitatearen arteko disfuntzio handia ikusten dela; izan ere, gizartean konpromiso malguagoak hartzeko joera dago, bilerak saihestu egiten dira eta lotura txikiagoa dago ideologia handiekin. Arazoa, gaineratzen du, ez da jendeak parte hartu nahi ez izatea, baizik eta jendeari erakargarriak egingo zaizkion baldintzetan parte hartzeko modua bilatzea. Haren iritziz, pertsona berriei bide eman behar zaie, funtzioak delegatu, boluntario berriei ongietorria egiten eta laguntzen ikasi, erakundeko funtsezko parte senti daitezen eta ez konpartsa soil bat.

Angel Toña sailburuak eskerrak eman dizkio Xabier Bañuelosi egindako lanagatik eta azalpenagatik, eta txostenak aipatzen dituen zailtasun eta erronkek etorkizunean Kontseiluaren lana bideratzeko balioko dutela nabarmendu du.

4- 2016an garatuko diren ekintzak

José Alberto Vicentek azaldu du zer ekintza dagoen martxan 2016an, bai eta aurreikusita daudenak ere.

2. ekintza - Estrategiaren inpaktu sozialaren ebaluazioa. Urtea amaitzean.

7. eta 8. ekintzak - Maratoi solidarioa telebistan eta EITB taldearekin lankidetzan. Batasun gisa planteatzen dira bi ekintzak. EITBri sentsibilizatzeko eta boluntariotzaren jardunbide egokiak nabarmentzeko laguntza eskatzean datza.

José Javier Miguelek EITBrekin hitz egin du, eta haren ordezkariari ondo iruditu zaie boluntariotza sustatzen laguntzea. Eskatzen dutena da zehaztea zer den egin nahi dena eta zein helbururekin.

10. ekintza - Eusko Jaurlaritzaren boluntariotzaren webgunea eguneratuta mantentzea. Webgunea eguneratzen jarraituko dute. Gainera, diseinua eta edukia berrikusiko dira.

13. ekintza - 2016ko boluntariotzaren errealitatearen lau urtez behingo azterlana, sektorearen bilakaera ikusarazteko. Kuantitatiboa eta kualitatiboa. Asmoa da Xabier Bañuelosek aurkeztutako ikerketa baliatzea eta EUSTATEk aldizka egiten dituen inkestetatik interesatzen zaizkigun itemen datuekin osatzea.

15. ekintza - Gazteen artean boluntariotza sustatzeko kanpaina. Bideoa egina dago eta sare sozialen bidez ari da zabaltzen. Gainera, unibertsitateetan jarraipena emango zaio Unikide programari.

16. ekintza - Herritar arrunten artean boluntariotza sustatzeko kanpaina. Ekintza hau 7 eta 8 ekintzekin bateratzea proposatzen da.

20. ekintza - Enplegua suspertzeko neurriak, boluntariotzako erakundeetan langileak liberatzeko aukera ematen dutenak. Proposamena da enplegua sustatzea, boluntariotzako erakundeetan langileen kontratazioa lagunduta.

Lanbideko zuzendariarekin hitz egin da, jakiteko ea deialdi bat egiteko aukerarik dagoen, langabezia dauden pertsonak interes sozialeko lanetarako kontratatzea sustatzeko, EINK egindakoen antzekoa, baina, kasu honetan, boluntariotzako erakundeetan lan egiteko. Erantzuna da Lanbidek ez duela aurreikusten deialdi hori egitea, dagoeneko badaudelako udalen bidez profil jakin batzuetako langabeak kontratatze deialdiak. Aukera gisa proposatzen da udalekin hitz egitea, kontratu horietako batzuk boluntariotzako erakundeei esleitzeko aukera eman dezaten deialdi horien bidez.

Diruz lagunduta kontratatze moduen artean, aztertu beharreko beste bat Lanbide Heziketako ikasleen praktikaldiko edo prestakuntzako kontratuak dira; izan ere, arlo horretan badaude baliabideak xede horretarako.

22. ekintza - Boluntariotza eta partaidetza sozialaren alorrean administrazio publikoen arteko koordinazio-esparrua definitzea. Ekintza hori tokiko kargu publikoen prestakuntza eta sentsibilizaziora bideratutako ekintzak bereganatu duela ikusten da, eta ezabatu egiten da.

23. ekintza - Boluntariotzaren eta partaidetza sozialaren euskal topaketa. 2017ko apirilean edo maiatzean egingo da. Irailean galdetegi bat bidali zitzaion erroldako erakundeei. 54 erakundek erantzun zuten. Urte honetan zehar prestatuko da topaketa. Prestaketa lanetarako batzorde bat sortu da eta Kontseiluko presidenteordeak, Boluntario ordezkariek, Gizaldekoko beste batek eta Saileko bi teknikariek osatzen dute. Batzordean Kontseiluko bi kide sartzeko proposatzen da. Bizkaiko boluntariotzako arduradunen foroarekin eta Gipuzkoako Sareginez sarearekin elkartu gara, haien proposamenak biltzeko.

28. ekintza - Prestakuntza. Tokiko kargu publikoei zuzenduta dago. Tokiko elkarte-sarearekin duten harremanetatik hautatutako zortzi udali zuzendutako proposamen bat egitea da asmoa. Hautatutako udalek haien esperientziak partekatuko lituzkete batzar batean, hirugarrenei esportatu ahalko zaizkien lan-hipotesiak sortzeko helburuarekin. Ondorioak publikoki ezagutaraziko dira. Era berean, parte hartzen duten zortzi udalei, edo beste batzuei, jarraipen-zerbitzu bat eskainiko litzaieke aurreikusten diren helburuak lortzen laguntzeko. Epe ertain-luzean garatu beharreko prozesu bat izango litzateke. Hasierako lan-bilera uda eta gero egin daiteke, eta jarraipen-prozesua, aldiz, 2017an zehar.

Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza harremanetan jarri da Asier Gallastegirekin, hausnarketa-, coaching- eta berritze-prozesuetan aditua bera, ekintza hau diseinatzen eta dinamizatzen lagun diezagun. Ekainaren amaieran proposamen bat aurkeztuko du.

32. ekintza - Urteko txostena, Boluntariotzak Autonomia Erkidegoan duen egoerari buruzkoa. Udazkenean txostena aurkezteko bilera bat egingo da interesa duten erakunde eta pertsonekin. Gainera, erroldako erakundeei bidaliz eta webgunean argitaratuz zabalduko da.

Azaldutako ekintzen proposamena onartzen da.

5.- Galderak eta eskaerak.

Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendari José Javier Miguelek azaldu du, estrategiatik kanpo badago ere, euskal erakundeentzat oso garrantzitsuak direla Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuan aurreikusitako laguntzak. Bi laguntza-ildo dira:

1.- GIZ: Gizarte-arloan esku hartzeko jarduerak, pertsona, familia, talde eta komunitateei zuzenduak. Aurten, aurrekontua 3.743.480 € dira. 381 proiektu aurkeztu dira eta 12k atzera egin dute; beraz, 369 geratu dira. 358 baloratu

dira. 11 ez dira aintzat hartu ez zituztelako deialdiaren baldintzak betetzen. Azkenean, 126 erakunderen 185 proiekturi eman zaie dirulaguntza.

2.- ELK: Gizarte esku-hartzean ekintza boluntarioa eta parte-hartze asoziatiboa indartzea. Aurten, aurrekontua 599.000 € dira. 119 proiektu aurkeztu dira eta bik atzera egin dute; beraz, 117 geratu dira. 105 baloratu dira. 12 ez dira aintzat hartu ez zituztelako deialdiaren baldintzak betetzen. Azkenean, 69 erakunderen 82 proiekturi eman zaie dirulaguntza.

Zuzendariaren iritziz, boluntariotzaren estrategietan garrantzitsua da ekintza boluntarioa sustatzeko dirulaguntzak ezagutzera ematea, eta, horregatik, komenigarria iruditzen zaio hurrengo estrategiak barnean hartzea dirulaguntza horiek.

Bestalde, aipatu du abenduaren 5aren inguruan sentsibilizazio-kanpaina bat egiteko asmoa dagoela, boluntariotzaren garrantziaren inguruan.

Rafael Hernándezek nabarmendu du erakundeek haien gizarte-jarduera gauzatu ahal izateko lokalak behar badituzte ere, askok ez dutela halako tokirik edo, edukita ere, ez direla nahikoak haien beharrak asetzeko. Haren iritziz, erabiltzen ez diren lokalak dauzkate administrazioek, xede horretarako laga edo arazoizko prezio batean aloka daitezkeenak; eta lagapen hori graziazkoa izan ez dadin, sistema arautu bat ezartzea komeni da.

Ángel Toña sailburuak adierazi du, proposatu berri duena eskaera orokor bat bada, Lantalde Iraunkorrak egin dezakeela gai horren lanketa, gero Etxebizitzako Sailburuordetzaren bitartez bideratu daitekeen ikusteko; izan ere, Jaurlaritzak sustatutako etxebizitzaren etxabe asko hutsak baitaude.

Gizarte Politiketako sailburuordeak dio eskaera zehatzei erantzuna eman zaiela. Bai hark, bai sailburuak aipatu dute Kontseiluak babestutako sistema objektibo bat ezartzea izango litzatekeela onena, eta Lantalde Iraunkorra gaia aztertzeraz bultzatzen dute.

Natxo Arnaizek adierazi du etxabeak esleitzea eskaera historiko bat izan dela eta zuzena iruditzen zaiola proposatzen dena. Azaldu du Bizkaian eskaera horri erantzuna ematen saiatu direla 2007tik, Boluntaren eraikin berean kokatutako Ganbara proiektuko lokalekin, baina gehiago behar direla; izan ere, instituzioen laguntza hauek jasotzen dituzten zenbait erakundeek haien jarduera biderkatzea lortzen dute. Amaitzeko, urte hau egungo strategiaren azken urtea denez, urtea amaitu aurretik beste osoko bilkura bat egitea proposatzen du, 2017ko jardueran lehentasunak ezartzeko.

Sailburuak adierazi du urriaren amaieran edo azaroaren lehen hamabostaldian deituko zaiola Kontseiluari.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, bilera amaitutzat eman da 11:30ean.

O.E.

Ramón Andrinua

Ángel Toña